

**“40 Taupada, herri bat” dokumentalaren aurkezpena**
Presentación documental 40 Taupada, herri bat

2019-10-21 Sede EITB 21-10-2019

Lehendakariaren hitzaldia-Intervención del Lehendakari

Eusko Legebiltzarburu andrea eta zurekin batera zaudeten eta herri agintari eta ordezkariok, EITB-ren arduradunok, jaun-andreok, arratsalde on!

Euskal Irrati Telebistaren egoitza nagusian gaude, hau da, Gernikako Estatutuarekin batera jaio ziren hedabide publikoen etxean.

Egoitza honen aurrekaria Venezuelako Radio Euskadi da. Duela 70 urte, diktadura frankista betean, gazte boluntario talde batek Venezuelako oihanetik emititzen zuen; Euskadiren ahotsa hemen entzun zedin.

Gaur, Radio Euskadik eta EITBk egoitza digital honetatik emititzen dute mundu guztirako.

Adibide bat da, Herri honen taupadarena. Euskadiren erakundetze progresiboaren adibide bat. Autogobernuak gure herriaren garapen eta aintzatespenean egin duen ekarpenaren kapitulu bat.

Aitortutako Autogobernuak balio handia du Euskadirentzat. Dokumentalean ikusi dugu hori. Ikusi dugu EITB, Ertzaintza, Osakidetza, Unibertsitatea, kultura edo euskara nola garatu diren. Ikusi dugu, baita ere, industria, ingurumena edo berrikuntza politikak, ogasun propioa, gizarte politikak edo berdintasuna zabaltzen.

Aurrera egin dugu eta, hori, **gure aurreko belaunaldiei zor diegu**. Gure eskubideak eta Autogobernurako gaitasuna berreskuratu eta defendatzeko borrokatu ziren pertsona guztiei.

Hemos avanzando. El Autogobierno nos está permitiendo la institucionalización de nuestro País. La construcción social, cultural y nacional de Euskadi de forma gradual.

El documental “40 taupada, herri bat” que hemos visto **nos hace sentir este progreso**.

Hoy, miramos al futuro.

Los latidos del Autogobierno se mantienen porque el Estatuto de Gernika sigue incumplido. La defensa de nuestro Autogobierno reconocido necesita tenacidad, creatividad, firmeza y perseverancia. **También unidad**.

Gure Autogobernua erabat hedatzeko dago oraindik. Gaur, auzolanean jarraitzeko beharra aldarrikatu nahi dugu. Autogobernuaren taupadek etorkizunean ere iraungo dute. Saiatuko gara aurrera egiteko borondatea bateratzen, jauzi kualitatibo bat egite aldera, **gure Herria eraikiz jarraitzen**.

Termino. Hoy es un buen día para reivindicar, para reconocer y valorar el legado que hemos recibido desde la lejana selva venezolana hasta esta moderna sede digital de EITB.

Un buen día para reivindicar la pulsión de este Pueblo para seguir latiendo, el deseo de seguir avanzando, **la ilusión de seguir creciendo**.

Un buen día para asumir el compromiso con la construcción social, cultural y nacional de Euskadi Basque Country.

Se trata de aunar voluntades para avanzar, para **dar un salto cualitativo**. El Autogobierno reconocido, singular y gradual es la base firme sobre la que podemos crecer.

Hoy miramos al futuro, miramos a Europa y el mundo. Aquella Radio Euskadi de la selva venezolana es hoy la EITB que emite vía satélite y a través de la red para todo el mundo. **Un ejemplo de la capacidad de este Pueblo**.

Gauza asko lortu eta eraiki ditugu. Gaurkoa egun ona da Herri honek taupadaka jarraitzeko duen bulkada hori, aurrera egiteko gogo hori eta **hazteko ilusio hori agerian jartzeko**.

Egun ona da **geure egiteko** Euskadi Basque Country eraikitze konpromisoa. "40 taupada, herri bat", Autogobernuaren bidez **aurrera egiten jarraitu nahi duen Herria**.

Eskerrik asko zuen guztion ekarpenagatik!